

Urriaren 24an

DEIADAR

Baionan

2008ko maiatzaren 7ko Legebiltzarreko bilkuran, Christine Albanel Frantziako Kultura ministroak jakinarazi zuen frantses gobernuak lurralde hizkuntzen aldeko lege bat proposatuko zuela 2009an.


Zenbait aste berantago lurralde hizkuntzak Konstituzioan sartzen ziren, lehen aldiz, 75-1. artikuluan hain zuzen: “*Lurralde hizkuntzak Frantziaren ondarearen parte dira*”. Iragarpen hori eta bozka hori historikotzat jotzen ahal badira ere, bere historia osoan zehar lurralde hizkuntzen kontrako hizkuntza-politika eraman duen Frantzia bezalako Estatu batean, mementoko konkretuki ez da deus irabazia.

Euskalgintzarentzat argi da euskarak zer behar duen: ofizialtasuna eta hizkuntza-politika ausart eta eraginkorraren martxan jartzea. Iragarri legeari dagokionez, lehen aldia da frantses Gobernu bere lurralde hizkuntzen aldeko lege bat proposatzera engaiatzen dela. Aukera paregabe hori baliatu behar dugu euskararen beharrak zein diren oroitarazi eta goraki aldarrikatzeko. Lege horrek ez du gaur egun egiten diren gauza apurretara mugatu beharko: lege-koadroak zabala izan behar du eta hizkuntza-politika eraginkor baten ezartzeari ateak ireki behar dizkio.

2009an oraino euskara desagertzeko arriskuan da. Larritasun egoera honen aitzinean eta prestatzen ari den legea kontuan harturik, garaia da mobilizatu eta indarrak batzeko, deiadarra jotzeko.

Urriaren 24an denak

Baionara !



EUSKAL KONFEDERAZIOA

En mai 2008 le Gouvernement français annonçait qu'il présenterait un projet de loi concernant les langues territoriales courant 2009. Quelques semaines après, ces langues entraient dans la Constitution. Si cette annonce et ce vote constituent une avancée dans un pays comme la France qui n'a cessé de mener une politique linguistique à l'encontre des langues territoriales, cela n'est nullement suffisant.

Deux éléments sont indispensables à la survie et au développement de la langue basque: sa co-officialité et la mise en place d'une politique linguistique audacieuse. Mobilisons-nous afin que le gouvernement français prenne enfin ses responsabilités et adopte les mesures indispensables au plein développement de l'euskara !

Euskararen egoera : argi ilunak

Berriki plazaratu bi txostenek gure hizkuntzaren kinka larria islatzen dute: 2006an egin IV. Inkesta soziolinguistikoak eta UNESCO-k 2009 urte hastapenean atera Arriskuan diren munduko hizkuntzen atlasak*. Baina egoera hori ez da behin betikoa, euskarak behar duen lekua erdiesten ahal dugu. Bi baldintza nagusi behar ditugu horretarako :

1- Euskal jendartearen **atxikimendua**. Azken inkesta soziolinguistikoaren arabera gure jendartea euskararen gose dela argi eta garbi agertu da :

93k uste du euskaraz eta frantsesez mintzatu beharko litzatekeela etorkizunean

Gizartean bi hizkuntza egoteak ez du arazorik sortzen % 82arendako

83k euskararekiko interesa adierazten du

51k ontzat jotzen du Administrazioan sartzeko euskara jakin behar izatea

56k ontzat jotzen du ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea.

2- Euskararen **ofizialtasuna eta lege geriza**. Jendea prest da euskarari indar emateko, orain botere publikoen aldetik borondatea eta erabaki irmoak hartzea da eskas den gauza bakarra eta horretara bultzatu behar ditugu mobilizazio

azkarraren bitartez ! Azken urteetan, euskararen aldeko hizkuntza politika garatzeko, Euskararen Erakunde Publikoa sortu da baina egitura horrek bere mugak laster agerian utzi ditu, eskumen biziki mugatuak baititu. Gure hizkuntzaren beharren arabera lege geriza erdietsi behar dugu eta horri loturik, hizkuntza politika ausart eta eraginkorra.

UNESCO erakundeak argitaratu atlasean Frantses Estatuaren eremuan mintzaten diren beste lurralde hizkuntza guztiak ere desagertzeko zerrendan daudela ageri da: bretainiera, korsikera, gaskoiera, alsaziarra... Alta katalana ez da gehiago lanjerrean UNESCOren arabera, Katalunia hegoaldean eraman hizkuntza politika ausartari esker.

Lege eraginkorra lortzeko borroka horretan ez gara bakarrik. Estatuko beste herriekin elkarlanean aritzeaz gain, Nazio Batuen Erakundeak behin eta berriz gutxiengo linguistikoak aitortzea eta Hizkuntza Gutxituen Aldeko Euro Karta berrestea galdegin dio Frantziar Estatuari. Aukera historikoa dugu egun gauzen aldatzeko, ez dezagun hutsik egin, mobiliza gaitzen !

*(<http://www.unesco.org/culture/ich/index.php?pg=00206>)

Deux documents témoignent de la situation très préoccupante dans laquelle se trouve la langue basque : les résultats de la IVème enquête sociolinguistique et l'Atlas des langues en danger dans le monde publié par l'UNESCO. Mais pour que notre langue retrouve sa place dans la société il nous faut deux choses : le soutien de la société basque et la reconnaissance officielle de la langue avec une politique linguistique audacieuse et efficace.

Pour ce qui est du soutien de la société, les résultats de l'enquête sociolinguistique démontrent que notre société est prête à franchir le pas. 93 % de la population estime que l'on devrait parler basque et français dans l'avenir. 82% pense que la présence du basque ne pose pas de problème et 83% porte un intérêt à notre langue. Une large majorité (56%) est pour la généralisation de l'apprentissage de la langue basque dans les écoles.

Les compétences limités de l'Office public de la langue basque empêchent la mise en place d'une politique linguistique audacieuse et efficace. Mais aujourd'hui nous sommes devant une situation historique que l'on ne doit pas manquer afin d'aller plus loin. Surtout que nous ne sommes pas les seuls, grâce au travail en commun avec les autres minorités linguistiques de l'Etat français ainsi que les appui des instances internationales comme l'ONU qui ont maintes fois demandé à la France de reconnaître les minorités linguistiques et de ratifier la Charte européenne des langues régionales et minoritaires.

Hizkuntza politika ausarta behar du euskarak !

Euskal Konfederazioarentzat eta Kontseiluarentzat argi da euskara ofiziala izendatzeaz gain hizkuntza politika bat ez daitekeela arlo bakar batzuetara mugatu. Arlo oro hunkitu behar ditu bermatzeko :

Hezkuntza-sistemak belaunaldi berriak osoki euskaldunduko dituela ;

Administrazioa euskaldunduko dela ;

Alor sozioekonomikoa euskaldunduko dela ;

Euskararen normalizazioak politika publiko eta pribatuetan zehar lerro izaera ukanen duela, gune jakin batzuetara mugatu gabe ;

Helduen euskalduntzea estrategikotzat joko dela ;

Hedabideetan kuotak ezarriko direla ;

Euskararen aurrekontua nabarmen handituko dela Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa euskaldunduko direla.

Hizkuntza-politika egoki hori ezar dadin, Euskal Konfederazioak lan berezi bat hasi du azken hilabeteotan. Horrela, Euskal Kulturaren Sustengurako Herriarteko Sindikatuari mozio bat aurkeztu zion, Sindikatuak 2009ko martxoaren 7an aho batez onartu zuena. Mozio honekin Sindikatuak frantses Gobernuari galdeginen dio Konstituzioaren 2. artikulua alda dezan, lege proposamena 2009 bukatu aitzin aurkez dezan eta dagokion legeria onar dezan. Estatuko beste herriekin eta Frantziar legebiltzarreko diputatuekin ere bildu da euskalgintza, lege berria eraginkorra izan dadin azpimarratzeko.

Horretarako lurraldeetako hizkuntzen ardura politikoa eta hizkuntza politiken kudeatzea tokiko instituzioei edo lurralde elkargoekin partekatu beharko du gobernuak, lurralde horiek tokiko hizkuntzen iraupenerako eragile izan daitezen, beharrezko baliabideak eskuratuz. Frantses hizkuntzaren parean, lurralde hizkuntzak tokiko egiturek ofizialki ezagutzea lurraldeari dagokion hizkuntza gisa ezinbestekoa da.

Gure hizkuntzaren biziraupena eta transmisioa bermatzea, erran nahi baita, hiztun kopuruaren behaldirako joera aldatzea hiztun osoak sortzeko helburu duen hizkuntz politikarekin eginen da. Sail publiko eta sozial ezberdinetan euskarari tokia eginez, gure hizkuntzaren presentzia segurtatuko da eta nahi duen biztanle bakoitzarentzat, tokian tokiko hizkuntzaren erabiltzea, entzutea, hitz egitea eta irakurtzea ahalbidetuko da, eta etorkinen integrazioa erraztuko da.

**Euskararen etorkizuna
Euskal Herri osoko euskaldun eta
euskaltzale guztion esku da.**

Mobiliza gaitezen !

**Urriaren 24an
Manifestazioa
Baionan**

www.deiadar.org

Euskal Konfederazioa est conscient qu'en plus de la co-officialisation de la langue basque la mise en place d'une politique linguistique adéquate est indispensable. Celle-ci devra permettre d'augmenter le budget consacré à l'euskara, de prendre des mesures au niveau de l'enseignement (pour que les jeunes soient totalement bascophones), de l'administration, des médias, de l'enseignement aux adultes...

Le Syndicat Intercommunal de Soutien à la Culture Basque a adopté à l'unanimité une motion soumise par Euskal Konfederazioa, demandant au Gouvernement de présenter son projet en 2009, de modifier l'article 2 de la Constitution et de mettre en place un dispositif législatif approprié pour les langues territoriales dans le droit français.

Euskal Konfederazioa pense que parmi les principes que doit reconnaître la loi linguistique, il est indispensable que l'Etat partage avec les collectivités territoriales la compétence de la politique linguistique, qu'il les dote de moyens humains et financiers nécessaires ou encore que le droit des citoyens d'apprendre, d'entendre, de parler et de lire la langue basque soit pleinement respecté.

1989-2009 : 20 urtez mobilizaturik !

Urteak	Euskalgintzako herri mobilizazio batzuk	Podere publikoen erantzunak
1989	DEIADAR lehen mobilizazio zabala : Kultur eskubideen alde	Seaska-frantses Hezkunde Nazionalaren arteko hitzarmen iraunkorra Euskal kulturaren sustengurako Herrien arteko sindikataren sorrera
1990	<i>Bide seinaleak</i> euskaraz kanpainaren hasiera EHE-ren eskutik	Euskal Kultur Erakundearen sorrera : kultur mugimenduak eta instituzioak
1991	Ofizialtasuna orain ! manifestaldia EHE-ren eskutik	
1992	DEIADAR mobilizazio zabala : zuzentasuna euskal herritarrentzat !	Konstituzio aldaketa : « <i>La langue de la République est le français</i> » Pays Basque 2010 gogoeta prozesuaren lehengo mintegia, Estatuaren iniziatibaz
1994	DEIADAR kolektiboak antolatutako Euskararen ihardunaldiak : <i>Euskararen agiria berehalako 40 neurri eta gomendio</i> dokumentua	Toubon legea, article 21 : « <i>Les dispositions de la présente loi s'appliquent sans préjudice de la législation et de la réglementation relatives aux langues régionales de France et ne s'opposent pas à leur usage.</i> » Garapen Kontseiluaren sorrera : jendarteko sektoreak (euskalgintza barne), hautetsiak eta administrazioa Lehengo bide seinale elebidunak Departamenduko bideetan Toubon Justizia ministroak : Eurokartari eza
1995	Konfederazioaren sorrera, <i>Euskararen Agiria</i> oinarritzat harturik	Hautetsien kontseiluaren sorrera ETB Iparraldean ofizialki errezibitzeko ituna izenpetua Euskaltzaindiari interes publikoko ezagupena aitortua
1996	Euskal Konfederazioak : <i>Hizkuntz politikarako idazkaritza nagusia</i> sortzeko aldarrikapena	Garapen Kontseiluak <i>Lurraldea</i> izeneko Antolakuntza Eskemaren lantzen du (Hizkuntza kapitulua badu)
1997	Kontseiluaren sorrera	Ipar Euskal Herria « Pays » izendatua da Podere publikoek Antolakuntza Eskema ontzat emaiten dute Hizkuntza gutxituei buruzko Pery eta Poignant-en txostenak, gobernua eskaturik
1998	DEIADAR mobilizazio zabala : ofizialtasuna eta Antolakuntza Eskema gauzatu <i>Bete hitza euskarari lege geriza !</i> <i>Bai Euskarari</i> bost estadioetan	
1999	Departamendua eta euskararen ofizialtasunaren aldeko manifestaldia eragile politikoaren eskutik	Eurokarta izenpetua bainan ez berretsia Konstituzio Kontseiluaren debekuagatik. Chirac-ek Hizkuntza legea proposatzea hitz emaiten du
2000	DEIADAR mobilizazioa : ofizialtasuna, hizkuntza politika serioa; Euskararen Geroa orain trenkatzen da ! Euskal Herriko hautetsiei deialdi berezia Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak : Bai Euskarari akordioa (209 eragile Iparraldean). Bai Euskarari akordioa Saran	Euskal Herriko Hitzarmen berezia : diru laguntza iraunkorrak hizkuntzaren alde eta elkartearen ezagupena
2001		Hizkuntza Kontseiluaren sorrera : euskalgintzako herri mugimenduak eta instituzioak mahai baten inguruan
2002	Herriko Etxei hitzarmen proposamena Euskal Konfederazioaren eskutik SNCF-eri buruzko kanpaina Demoen eskutik BATERA plataforma (Euskal Konfederazioa 5 sortzaileetarik bat) : euskal departamendua, euskararen koofizialtasuna, Laborantxa Ganbara eta berezko unibertsitatea	Hizkuntzari buruz Obragintza publikoaren sorrera : Estatu, Akitania, Departamendua eta Herriak biltzen dituen koordinazio informala
2003	BATERA -ko mobilizazio handiak	Sarkozy Bare ministroaren bisita : hizkuntza aipagai
2004		Obragintza publikoa eta Jaurkitzaren arteko hitzarmena hizkuntzaren garapena diruz laguntzeko Iparraldean
2005	<i>Hizkuntza politika Iparraldean</i> dokumentua Euskal Konfederazioak argitaratua	Euskararen Erakunde Publikoa -ren sorrera (Hizkuntza Kontseilua eta Obragintza publikoa ordezkatzen ditu)
2006	42 Herriko Etxek izenpetu dute Euskal Konfederazioak proposatu hitzarmena Herriko Etxeen hizkuntza politikaren neurrak Kontseiluaren eskutik	EEP-ko hizkuntza politika proiektuaren aurkezpena
2007		EEP-k Herriko Etxei buruz Euskal Konfederazioak hasitako lana segitzeko engaiamendua hartzen du
2008	Frantses Estatuko lurralde desberdinen arteko plataformaren sorrera : manifestua adostua	Konstituzio aldaketa : hizkuntza gutxituak ondare gisa ezagutuak dira 75. artikuluan Kultura ministroak hizkuntza lege proiektua 2009an aurkeztuko duela hitz emana
2009	Lurralde desberdinen arteko plataformaren printzipioen adierazpena urriaren 24an : DEIADAR Baionan	???